

BERMEOKO HIRIBUSA (BERMIBUSA) UDAL GARRAIO ZERBITZUA
KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA

Bermeoko Urian, Intxausti kaleko batzar gelan, 2016eko urriaren 11an, goizeko 10:00ak direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Xabier Ortuzar Butron J^a, Zinegotzia
Ainara Etxebarria Agorria A^a, Udal idazkariaren ordezkoa
Edurne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio mahaiaren idazkaria

Kontratazioaren helburua: Bermeoko hiribusa (Bermibus) udal garraio zerbitzua

B eta C gutun azalak zabaldu ondoren, dokumentazioa Zerbitzu Saileko teknikaria bideratu zen balorazio tekniko egin zezan.

Zerbitzu Saileko teknikariak bere txostena egin du non aurkeztutako eskaintza ontzat hartu eta hurrengo proposamenak egiten ditu:

- Excursiones Tuñez Sanchez, S.L enpresari *Bermeoko Hiribusa (Bermibus) udal-garraio zerbitzua* esleitzea, pleguetan jasotako baldintzatan eta **92.727,27 eurotan** (BEZ kanpo), BEZari dagokion kantitatea 9.272,73€-koa da (Guztira: 102.000,00€ urteko).
- Kontratuan jasotzea enpresak aurkeztutako hobekuntza guztiak.
- Enpresari jakinaraztea ahalik eta arinen udal teknikariekin batzartu behar dela hobekuntzen ezarketarekin lotuta egutegi bat finkatzeko.

Honela, Kontratazio Mahaitik "Bermeoko hiribusa (Bermibus) udal garraio zerbitzua" Excursiones Tuñez Sanchez, S.L. enpresari esleitzeko beharrezko errekerimendua bidaltzea eta bere aldeko esleipen proposamena Alkatzetara bideratzea proposatzen da.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

